

# Eskolapioak

KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOAN

Kongoko  
erritnora



Eskolapioak 2014ko azaroan heldu ziren herrialdeko hiriburua den Kinshasara. Kongoko eskolapio batek Kamerungo eskolapio baten eta Gineako beste baten laguntzaz jarri zuen abian Kongoko misioa, Erdialdeko Afrikako probintzia eskolapioaren babespean. Hartara, hiru eskolapioek lehenengo erkidegoa sortu zuten Lemba auzoan. Gaur egun, eskolapioek bi erkidego dituzte KEDen: Kinshasakoa, lehen aipatutakoa, eta, handik ehun kilometrora, hegoaldean, Kikonkan dagoen beste bat.

Kinshasan, eskolapioek kaleko neska-mutilekin lan egiten dute, batez ere, 6-14 urteko hogeit bat adingaberi ematen dietelako arreta. Guzti-guztiei erreferentziako eskola bilatzen zaie, eta elikadura bermatzen zaie. Izan ere, azkenean euren familiekin itzultzea da helburu nagusia.

Kikonka Kisantuko udalerritik hurbil dagoen 15.000 biztanleko hiri-kokalekua da, eta, bertan, hitzarmena sinatu da Elizbarrutiarekin, eskolapioek San Pedro parrokia eta bertako hiru parrokia-eskolak euren gain hartu ditzaten (bat Lehen Hezkuntzakoa da; eta beste biak, Bigarren Hezkuntzakoak).



## ESKOLAPIOEN MISIOA ETA PROIEKTUA KIKONKAN

Eskolapioen “Kongoko erritmora” elkartasun-kanpainak Kikonkan garatuko du bere jarduera nagusia, eskolapioak bertan garatzen ari diren hezkuntza-proiektuak jakitera emateko eta diruz laguntzeko.

Kongoko  
erritmora



### Bi ur-putzu

Kikonkako biztanle gehienek hurbileko ur-laster txikietan biltzen dute ura, inguru osoan inolako putzurik ez dagoelako. Biztanle gehienek hezkuntza-maila txikia denez, ez dakite zeinen arriskutsua den osasunerako tratatu gabeko ura erabiltzea eta zeinen premiazkoa den edateko ura osasungarritasun-baldintzetan lortzea. Kikonka osoan, edate ura hornitzerik ez dagoenez, gaixotasun infekziosoen tasak handiak dira, eta larritasuna are handiagoa da neska-mutilen artean. Ura oso osasungarriak ez diren lekuetan bilatu behar dutenez, era guztietako osasun-arazoak sortzen dira.

Hasieran, Lehen Hezkuntzako eskolari eta udalerriko bost “auzori” kontsumoa bermatzen dieten bi ur-putzu eraikitzea da helburua. Era berean, putzuak erabiltzen eta artatzen irakastea eta uraren erabilera onaren garrantziaren inguruan heztearen izango da helburua.

### Kikonkako Lehen Hezkuntzako eskola

Eskolapioek San Pedro parrokiaren alboan kokatuta dagoen Lehen Hezkuntzako eskola ere kudeatzen dute, eta, bertan, guztira, 16 irakaslek 885 adingaberi ematen diete arreta (463 mutil eta 422 neska). Eskola publiko hori Kisantuko Elizbarrutiarena da, Bigarren Hezkuntzako beste biak bezala, eta Kikonkako eskolapioek artatzen dituzte. Eskola guztietako azpiegiturak oso narriatuta daude: ateak zein leihoak hautsita daude, sabaiek iragazgaiztasuna galdu dute edo, beste barik, desagertu egin dira, zoruek arrakalak dituzte, hormak margotu gabe daude... Horrez gain, komun berriak ere eraiki behar dira eskolan, eta eskolako materiala zein altzariak ere erosi behar dira.

Hobekuntza horiek guztiak egitean, eskolara doazen 900 inguru neska-mutilen kalitateko hezkuntza bermatzea da azken helburua. Horretarako, zaharberritu eta altzari zein material egokiak ere erosiko dira eskolarako, klaseak duintasun eta eraginkortasun handiagoz eman ahal izateko.

### Kikonkako emakumeen jabekuntza

KEDeko emakumeek eta neskek bizi duten egoera oso-oso larria da. Eskolapioek, errealitate horren jakitun, Kikonkako emakumeen jabekuntzarako programa jarri dute abian Elizako Ahizpa Misiolari Gurutzatuekin batera.

Inguruan, emakumeen prestakuntzarako edo trebakuntzarako zentrorik ez zegoenez, programak beharrezko aukera eskaintzen dio kokalekuko 60 emakumeko taldeari. Ikastaroan, astean hiru egunetan, honako gai hauei buruzko prestakuntza jasotzen dute: oinarritzko nekazaritza, joskintza eta ehunen tindaketa, osasuna (ugalketa, ur-gaixotasunak, umeak...) eta alfabetizazioa (frantsesa). Herrialdera heldu zirenetik, eskolapioek edozein hobekuntza egin dute herrialdeko egoeran, emakumeek berdintasun-aukera handiagoak eduki ditzaten eta euren eskubideak bermatuta egon daitezen.

*Etorkizunean...*

Urteen joan-etorrian, Kikonkako misioak Bigarren Hezkuntzako eskolak zaharberritu beharko ditu, eta, zergatik ez, Haur Hezkuntzako eskola ere eraiki beharko du, Kikonkako neska-mutilen hezkuntza “txiki-txikitatik” hasi dadin.